

BIND4.0

STARTUP!
BASQUE INDUSTRY 4.0
ACCELERATOR PROGRAM

Open sessions 2019

STARTUPEN TXOSTENA

EDUKIA

	Orr.
Jardunaldien ikuspegia.....	3
Open Session bakoitzean parte hartzen duten Startupak.....	4
Startupen informazioa.....	5

JARDUNALDIEN IKUSPEGIA

Zer da?

Euskal ETEen eta BIND 4.0 programaren startupen arteko konexioak sustatzera eta eraldaketa digitaleko proiektu berriak garatzera zuzendutako networking jardunaldiak

Noiz eta non?

Lurraldea	Data eta ordua	Tokia
Araba	Apirilaren 5a 10etatik 14etara	Artium - Vitoria-Gasteiz
Bizkaia	Martxoaren 28a 10etatik 14etara	Bic Bizkaia - Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea -Derio
Gipuzkoa	Ekainaren 19a 11etatik 14etara	Tabakalera - Donostia / San Sebastián El Diario Vasco-rekin elkarlanean antolatutako Cita Emprende 2019 ren esparruan.

Nortzuk hartuko dute
parte?

Startupekin lan egiteko interesa duten euskal enpresa txiki eta ertainak

Zer motatako
startupak ikusi ahal
izango dituzu?

4.0 Industria teknologietan oinarritutako teknologia soluzio berritzaileak dituzten startupak.



OPEN SESSION BAKOITZEAN PARTE HARTZEN DUTEN STARTUPAK



STARTUPAK	BIND 4.0 OPEN SESSIONS 2019		
	Bizkaia: martxoak 28	Araba: apirilak 5	Gipuzkoa: ekainak 19
ADDILAN			
ATELEI			
BEAD TECHNOLOGIES			
BIOSCAN RESEARCH			
CTECHANANO			
DIFFERENGIN			
EAVE			
ENERGYSEQUENCE			
ENGIDI			
FLYTHING TECHNOLOGIES			
HDIV			
IDDO			
IMMERSIA			
IOMED			
JAKINCODE			
LUDUS			
NARU			
NICEVERI			
NEOSENTEC			
OPENCLOUD FACTORY			
ORETEK			
OSASEN			
PATIA			
PERSEI VIVARIUM			
SAMYLABS			
TUMAKER			
TYRIS AI			
VELTIUM			
VIXION			
WITRAC			
XABET			

Startupa lerro batean	Eransketa bidezko Fabrikazioa, industria-sektoreari, balio handiko, neurri handiko eta zailtasun geometriko ertaineko osagarrien fabrikatzaileei zuzenduta.
Kokapena	Durango, Bizkaia
Sortzaileak	Maher Holding - ONA Electroerosión
Langile kopurua	4
Eraikuntza-urtea	2017
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Eransketa bidezko WAAM teknologian (haria + soldadura) oinarritutako sistemak eta zerbitzuak
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Lehengaien hondakin altua (Buy-To-Fly ratio altua) eta Lead Time luzeak.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Balio handiko osagarrien fabrikatzaileei. Neurri handiko piezak lantzen dituztenei. Aeronautikaren sektoreari, oil&gas-ari, ontzigintzari eta trenbideei
Bezero nabarmenak	Aeronautikaren sektorearen, oil&gas-aren eta I+G zentroen key player-ak
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• MAIER
Harremanetarako pertsona	Amagoia Paskual - +34 607913302 - apaskual@addilan.com
Webgunea	www.addilan.com

Startupa lerro batean	4.0 Industriako gas- eta partikula-igorpena kontrolatzen dugu
Kokapena	Irun, Gipuzkoa
Sortzaileak	Ivan Piquer
Langile kopurua	6
Eraikuntza-urtea	2018
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Gure produktua industria-eremuetako gasen eta partikulen etengabeko monitorizazio sistema da. Hainbat gailuren bidez, 250 gas eta partikula eseki mota neurtzeko gaitasuna daukagu. Software cloud batek informazioa jaso eta enpresen eskura jartzen du; horrela, erregistroa burutu eta era prebentiboan jardun daiteke. Enpresei ez gelditzeko aukera eskaintzen diegu eta langileen lan-kalitatea hobetzen dugu, 4.0 Industrian segurtasuna gehituz.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Industri prozesuetan, ingurumenarentzat eta gizakiarentzat kaltegarriak diren gasak eta partikulak sortzen eta erabiltzen dira. Langileak dauden eremuetan gas eta partikulen igorpenak ekoizpena geldiarazi dezake, eta horrek gastuak sortzen ditu. Gure sistemak etengabeko monitorizazioa burutzen du, muga horietara ez iristeko xedearekin; esposizio-mailari buruzko informazioa denbora errealean ikusi baitaiteke.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Gure xede-bezeroak gasak edo partikulak sortzen edo erabiltzen dituzten industria-enpresak dira; zeinek, ihesa balego, langileak eta ekoizpen jardura arriskupean jartzen dituzten.
Bezero nabarmenak	Mercedes Benz / Fagor
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Mercedes Benz • Orona
Harremanetarako pertsona	Ivan Piquer - 943 090 609 - info@atelei.com
Webgunea	www.atelei.com

Startupa lerro batean	BEADek merkataritza eraikinen eredu digitalak sortzen ditu, denbora errealeko eta Alren datuen bidez, operazioak automatizatzeko helburuarekin (human-less operated buildings).
Kokapena	Berlin, Alemania
Sortzaileak	Soner Hacıhaliloglu - Hayrettin Erturk - Cem Aybar
Langile kopurua	6
Eraikuntza-urtea	2016
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	BEAD AI-ean oinarritutako sistema da; denbora errealeko okupazio datuak neurtuz, energia-kudeaketa, marketin estrategiak eta eraikinen operazioak aztertzen, optimizatzen eta operatzen dituena. Giza-jokabidearen eta eraikinen (bai publikoak zein merkataritza helburuak dituztenak) okupazio-joeren azterketa osoa burutzen ari gara. -, langile ugari behar dira, eta honek operazio-kostua eta erabilitako denbora areagotzea suposatzen du.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Urtero, 200 mila dolarreko galera daukagu energiaren eremuan, merkataritza eraikinetan energia nola eta zer modutan kontsumitzen dugun ez dakigulako. Ohiko automatizazio teknologiek ordutegi finkoetan eta okupazio balizko estandarretan oinarrituta lan egiten dute, merkataritza zein egoitza eraikinetan. Alabaina, suposizio hauen 1/3 baino ez da egia. Beraz, teknologia horien hutsik dauden eraikinak, biltegiak eta pisuak argizatzen eta aireztatzen dituzte gehienetan.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Ohiko BMS sistemekin lan egiteko kokapen anitzak eta eremu handiak dituzten merkataritza eraikinei.
Bezero nabarmenak	2019ko urtariletik aurrera, 3000 sentsore eta BEAD sistema baino gehiago jarri ditugu 5 herrialdeetako 100 eraikin baino gehiagotan. Carrefour, Network Fashion Chain, English Home, MacFit, QNB Bank, Deutsche Bahn, Audi, Migors, E-on burutzen ari garen bezero eta proiektu pilotuetako batzuk dira. Gure bezeroek % 25 baino gehiagoko aurrezpena lortu zuten, energia, kontsumoa eta operazioak optimizatuz.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Viuda de Sainz
Harremanetarako pertsona	Soner Hacıhaliloglu - 905320616357 - soner@enbead.com
Webgunea	www.enbead.com

Startupa lerro batean	Garezur barneko lesioa duten gaixoen garezur barneko odoljariora berehala antzemateko Medical Device-a.
Kokapena	Ahmedabad, Gujarat, India
Sortzaileak	Shilpa Malik - Anupam Lavania
Langile kopurua	6
Eraikuntza-urtea	2017
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Garezur barneko odoljariorak 2 minututan antzemateko gailua. Medical Device hori erabiltzeko ez da gaitasun berezirik behar. Sistema ez inbaditzailea da, NIR espektroskopian oinarrituta; behin baino gehiagotan erabili daiteke gaixoaren kalterik gabe. Gaur egun diagnostikatzen ez diren garuneko lesioak dituzten milioika gaixoen bizitza salbatzeko helburua du.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Mundu mailan, ia 10 milioi lagunek dituzte garuneko funtzionamendu egokia eteten duten garuneko lesio traumatikoak eta, urtero, milioi 1 lagun hiltzen dira, soilik Indian. OMEren ikerketaren arabera, 2020rako, garuneko traumatismoak izango dira desgaitasunen kausa nagusia. Ordenagailu bidezko tomografien / erresonantzia magnetikoen erabilgarritasun egoera eskasak hautemate arina larriki mugatzen du; eta, beraz, heriotza- edo desgaitasun-tasa handiak egoten dira.
Zein bezero motari dago zuzendua?	1. fasea: Ospitaleei, larrialdi sailei, anbulantzia sareei, ebakuazio ibilgailuei. 2. fasea: Defentsari, Eskolei, Kirol Akademiei, Mediku orokorrei / Klinika Independenteei
Bezero nabarmenak	Indian buru diren bi ospitale katek gailua eskuratzeko interesa agertu dute. Gainera, gailuak merkatuaren balioztatzeko ikerketa egin beharko du erosketa eskaintza egingo duten gobernu hiru tokitan. Prozesu honen zabaltzea 2019ko apirilean hasiko da.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Ulma
Harremanetarako pertsona	Anupam Lavania - +91 8154881999 - anupam@bioscanresearch.com
Webgunea	www.bioscanresearch.com

Startupa lerro batean	Estaldurak eta pertsonalizatutako estaldura ekipamenduak garatzen ditugu, azalera konplexuak funtzionalak bihurtu ahal izateko; hau da, adibidez, partikulen edo hautsen kasua.
Kokapena	Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa
Sortzaileak	Jose Maria Pitarke - Miguel Angel Carrera - Andoni Isasti
Langile kopurua	3
Eraikuntza-urtea	2014
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Atomic Layer Deposition (ALD) teknika espezializatuta gaude. Estaldura zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzen ditugu. Azalera konplexuetarako estaldura pertsonalizatuak garatzen ditugu, hala nola estaldura babesleak (korrosioaren kontrakoa, urraduraren kontrakoa, UM kontrakoa...) edo estaldura funtzionalak (hidro/oleofoboak, bakterioen kontrakoak, foto katalitikoak...). Gure ALD ekipamenduek modulatu daitezkeen ezaugarriak dituzte: plasma, bolumena egokitzeko aukera duten kamerak edo geruza jariakordun erreaktoreak.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Ohiko estaldura teknikak ezin dute azalera konplexurik estali, hala nola hautsak eta substratu porotsuak. Azalera konplexuak bateragarritasun osoz, atxikidura handiz eta baldintza leunez estaltzeko gai den teknika bakarra ALD da. Ohiko ALD ekipamenduak ez bezala, mikroelektronikako substratu lau eta finentzat optimizatuta daudenak, hainbat sektore eta substraturen beharretara egokitzen diren ALD ekipamendu pertsonalizatuak garatzen ditugu.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Eransketa bidezko fabrikaziorako edo industria kimikorako hauts metalikoak, polimerikoak edo ez-organikoak fabrikatzen dituztenei. Ehungintza- edo kosmetika-industrietarako tinta edo pigmentu fabrikatzaileei.
Bezero nabarmenak	OSRAMentzat, argiztapenaren sektoreko enpresa handienetarikoa batentzat, alegia, estaldurak garatu ditugu, eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalarentzat diru-paperari estaldura egin diogu. Beste sektore batzuekin lan egin dugu ere bai, besteak beste, makina-erremintaren sektorearekin, gure Danobat zerbitzuaren bidez. Ekipamenduen salmentari dagokionez, alde batetik, industria-mailako ekipamenduak saldu dizkiogu Comelec-i eta, beste alde batetik, ikerketarako ekipamenduak saldu dizkiegu Florida Zentraleko Unibertsitateari, Humboldt-eko Unibertsitateari eta Paderborn-eko Unibertsitateari.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Danobat Group
Harremanetarako pertsona	Itxasne Azpitarte - 943 324 603 - i.azpitarte@ctechnano.com
Webgunea	www.ctechnano.com



Startupa lerro batean	DifferEngin-en 4.0 Industriaren esparruko enpresen digitalizazioarako IoT soluzioetan espezializatuta gaude.
Kokapena	Barakaldo, Bizkaia
Sortzaileak	Ángel A. García - Jordi Gartzia - Judith Laforga
Langile kopurua	3
Eraikuntza-urtea	2017
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	DifferEngin-en IoT soluzioetan espezializatuta gaude; eta, horren bidez, enpresei haien produktuak eta zerbitzuak digitalizatzen laguntzen diegu. Horrela, enpresei IoT-k eskaintzen dituen onurak eta datuetan oinarritutako negozio-eremu berria eskaintzen diegu.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Merkatuak 4.0 Industriaren paradigmarako joera dauka, baina enpresek ezin dute aurrera egin, honako behar hauek dituztelako: balio sorkuntza etengabea, gero eta eraginkorragoak diren ekoizpen prozesuak, bezeroarenganako orientazio handiagoa eta negozio eredu berriak. Egoera honen aurrean, enpresek berrikuntzan inbertitu behar dute era optimoan. Horregatik, DifferEngin-ek gaur egungo erronkei aurre egiten laguntzen die, horretarako haien produktu eta zerbitzuetan IoT barneratuz; era horretan, datuetan oinarritutako negozio-eredu berria eskaini dezake.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Gure merkatua B2B da, industria, zerbitzu, azpiegitura eta eraikuntza sektoreetan oinarrituta.
Bezero nabarmenak	DifferEngin-en argi daukagu bezeroarentzako gakoa bere beharretara egokituko den teknologoa soluzio pertsonalizatua dela, eta, aldi berean, sektoreko beste enpresetatik bereiziko duena.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Viuda de Sainz
Harremanetarako pertsona	Judith Laforga - contact@differentengin.com
Webgunea	www.differengin.com

Startupa lerro batean	EAVEk zarata pertsonalaren eta inguruko zarataren bilketa eta txostena automatizatzen du industria eremuetan.
Kokapena	Londres, Erresuma Batua
Sortzaileak	David Greenberg Doktorea
Langile kopurua	19
Eraikuntza-urtea	2015
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	EAVEk industriguneetako zaratak osasunean izan dezakeen arriskuak kudeatzeko soluzioa garatu du. Langileak zaratatik babestea garestia eta zaila izan da beti. EAVE soluzioari esker, arazo hau ez da hain zaila eta garestia izango, prozesua automatizatzen eta digitalizatzen baita. Hori zarataren monitoreoa eta dosimetria pertsonala entzumena babesteko pare bat gailu elektronikotan integratuz lortzen da. Entzumena zaintzeaz arduratzen den EAVEren plataformarekin bat egiten duenean, langileek duten entzumena galtzeko arriskua murrizten da.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Inguruetako zaratari buruz gobernuak ezarritako arauak betetzen badira ere, langileek zaratak eragindako entzumen galera dute oraindik ere. Industriguneetako arduradunak ez dira eguneroko zarataren gorabeheraz ohartzen. Hortaz, ezin dute bermatu langileak era egokian babestuta daudenik. Askotan, hori dela eta, langileak gehiegi babesten dira; eta, ondorioz, ezjakintasuna eta isolamendua dela medio, komunikazioa eragotzi daiteke eta istripuak izateko arriskua areagotu.
Zein bezero motari dago zuzendua?	50 langile baino gutxiago duten enpresei, inguru zaratatsuetan dihardutenei eta berrikuntza eta jardunbide hobeak har ditzaketenei. Eraikuntza eta industria dira lantokian zaratarekiko esposizio gehien duten sektoreak eta, ondorioz, gure xede-bezeroak.
Bezero nabarmenak	BAM Nuttall (Erresuma Batuko eraikuntza-enpresa), Arborists, Airport Construction, UK Shipbuilding, Manufacturing Facility Management. Laneko segurtasun arauak gehiago aplikatzen direnez eta eraikuntzaren, manufakturan, petrolioaren eta gasaren industrietako enplegu-maila igo denez, industria horiek dira, hain zuzen ere, gure xede-bezeroak. Gaur egun, EAVEk lan egiten du BAMEkin, Morgan Sindall-ekin, Kier-ekin eta Skanska-ekin, beste batzuen artean.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektu(k)	• Viuda de Sainz • Bridgeston
Harremanetarako pertsona	Clare Schwarzberg - 0333 880 5693 - clare@eave.io
Webgunea	www.eave.io

Startupa lerro batean	EnergySequence Industria-landareen kontsumoa murrizteko Adimen Artifizialeko zerbitzuak eskaintzen dituen Web Plataforma da.
Kokapena	Málaga
Sortzaileak	Antonio J Ruiz - Aitor Castillo
Langile kopurua	18
Eraikuntza-urtea	2015
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	EnergySequence-k bere Softwarearen bidez eta Eraginkortasun Energetikoaren analisia erabiliz optimizatzen du; horretarako, datuak era masiboan biltzen ditu eta horiek prozesatzen eta aztertzen ditu. CO2 igorpenak murrizten ditugu, operazioak sustatuz, eta estrategia-ikuspuntua erabiltzen dugu edozein industriako energia-erosketa konplexutarako.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Industria handiek energia aurreztu behar dute lehiakorrak eta jasangarriak izateko. Joerak ezagutzea eta enpresek behar dituzten aldaketei lehentasuna ematea lan neketsua da; eta, normalean, baliabide gutxi egoten da lan horretarako. Gure konparazio analisei, eraginkortasun eza aztertzeke gaitasunari eta operazio hobekuntzen eta inbertsio beharren proposamenari esker, gehiago eta hobeto behatu dezakegu, gehiago aurreztu dezakegu eta, beraz, jasangarriagoak izan gaitzek.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Industria handiei, ETEei eta energia merkaturatzaileei
Bezero nabarmenak	Fujitsu, Ferrovial, TDK, Heidelberg Group, Enel.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Gestamp Group
Harremanetarako pertsona	Antonio J Ruiz - +34 952025789 - ajruiz@bettergy.es
Webgunea	www.energysequence.com



Startupa lerro batean	Engidi-k <i>wearable</i> gailuak IoT teknologiaren bidez diseinatzen eta garatzen ditu, industriaren sektorean langileen segurtasuna hobetzeko helburuarekin.
Kokapena	Bartzelona
Sortzaileak	Gerard Fernandez - Ignacio Massana
Langile kopurua	6
Eraikuntza-urtea	2015
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	ENGIDIren lehenengo gailu mugikorra NGD-One da. Babesteko kasko barruan kokatuta, langileak segurtasunaren esparruan monitorizatzen ditu eta datu esanguratsuak IoT plataforma batera bidaltzen ditu denbora errealean. Bere konektagarritasun globala dela eta, NGD-One unibertsala da eta merkatuaren edozein bertikalean aplikatu daiteke. Gure plataformari esker, lan eremuaren arduradunak langileen segurtasunaren gaineko eguneratzea eta kontrola izango du eta, astero edo hilero, datuak atera ahalko ditu.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Lan istripuek izurritea izaten jarraitzen dute Laneko Arriskuen Prebentziorako. Laneko segurtasuna bermatzeko tresna teknologikoak falta dira, batez ere, industria-sektorean. Gure zerbitzuak eguneroko monitorizazioa bermatzen du eta larrialdiak edo istripuak denbora errealean jakinarazten ditu. Gainera, behin datuak bilduta daudela, Machine Learning metodoak aplikatzen ditugu etorkizunerako predikziozko ereduak eta jarrera patroiak ateratzeko.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Segurtasunerako teknologia eta berrikuntza ezarri nahi duten industriaren sektoreko enpresei. Telekomunikazio enpresei, B2B soluzio berritzaileak eskaintzeko. Haien erreferentziak berrikuntzaren eta teknologiaren bidez eguneratu nahi duten babes pertsonalerako ekipamenduko enpresei.
Bezero nabarmenak	Proba pilotuak 2019an eszenatoki errealean testatzeko. Bertikalen hainbat bertikal, esate baterako: eraikuntza tokiak, azpiestazio elektrikoak, lur gaineko meategiak, karga-portuak, fabrikak, petrolio eta gasa (atex erregulazioak eskatzen ez dutenak), basogintza...
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• ABB
Harremanetarako pertsona	Gerard Fernandez - +34 625 71 79 75 - gerard@engidi.com
Webgunea	www.engidi.com

Startupa lerro batean	Flythings-en, hainbat iturrietatik (SCADA, ERP, BI) jasotako datuei argia ematen diegu eta erabakiak hartzeko informazio baliodun bihurtzen dugu.
Kokapena	Coruña
Sortzaileak	Carlos Calvo Orosa / Gonzalo Blázquez Gil / Oscar Gonzalez Represas
Langile kopurua	4
Eraikuntza-urtea	2017
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Flythings-ek digitalizazioa errazten du industrian tresna malgua, bizkorra eta pertsonalizagarria erabiliz, monitorizazioa eta teknika aurreratua denbora errealean ahalbidetzen dituena; eta baita iturri heterogeneoetatik datuak hartzea ahalbidetzen duena, urrutiko jarduketa bame. Flythings-ek sistemen, prozesuen edo aktiboen gaineko ikuspena eskaintzen du produktibitate, eraginkortasun eta kalitate mailak hobetzeko era seguru eta jasangarrian. Horrela, zerbitzu berriak eta bezeroekin harreman eredu berriak sortu daitezke.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Industria-aktiboen baldintzen monitorizazioa eta predikziozko mantentzea. Prozesu produktiboen monitorizazioa eta hobekuntza. Kostuak murriztea. Energia-eraginkortasuna monitorizatzea. Trazabilitatea eta kalitate-kontrola linean. M2M konexioa urrutiko euskarriarentzat eta kontrol gaitasuna.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Monitorizatu edo aztertu gabeko datu-iturriak dituzten erakundeei, digitalizazio tresnen benetako emaitzak lortzeko helburua dutenei. Normalean, ekipamendu fabrikatzaileei, automobilgintzaren, Nekazaritzako Elikagaien, prozesuen edo enbriatzearen industriari.
Bezero nabarmenak	Bridgestone: Industria-aktiboen baldintzen monitorizazioa eta predikziozko mantentzea ekipamendu birakarietan. Trenbideak: Ospitale publiko baten kontsumo energetikoaren monitorizazioa, simulazioa eta aurreikuspena. Greenalia: Pelleten fabrikazioaren monitorizazio energetikoa eta prozesuaren monitorizazioa. Orbis: M2M konexioa urrutiko monitorizaziorako eta energia eta argiztatze kudeaketa sistemetan jarduketa.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektu(k)	• Bridgestone
Harremanetarako pertsona	Juan Carlos Galán - +34 634410089 - jcgalan@flythings.es
Webgunea	www.flythings.io

Startupa lerro batean	Enpresak eta erakundeak software segurtasun erasoetatik babesten ditugu.
Kokapena	Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa
Sortzaileak	Roberto Velasco - Gorka Vicente - Gotzon Illarramendi
Langile kopurua	12
Eraikuntza-urtea	2016
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Hdiv-ek enpresak eta erakundeak software sistemen kontrako erasoetatik babesten ditu, softwaretan oinarritutako industria-sistemen osotasuna eta erabilgarritasuna bermatuz. Horretarako, Hdiv-ek produktuak ditu bi eremu hauetan: segurtasun arazoak hautemateko esparruan (IAST ikuspegia) eta software sistematik era automatikoa babesteko eremuan (RASP ikuspegia).
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Gartner-en arabera, software sistemen % 60ak segurtasun arazoren bat dauka, eta horrek enpresetan eta erakundetan ondorio larriak sortzen ditu. Adibidez, datuak galtzea, galera ekonomikoak, ospea galtzea edo produkzio-sistematik gelditzea. Hdiv Security-k software sistemen babesa automatizatzen du eta, hortaz, arazo horiek ekiditen dira.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Hdiv hainbat sektoretan erabili izan da, hala nola bankuan, gobernuan, industrian eta e-commerce-n. Oro har, Java eta .NET plataformetan oinarritutako software sistemetan aplikatu da.
Bezero nabarmenak	Gaur egun, Hdiv Security-k ordaintzen duten 15 bezero ditu, top 10ean dauden bankuak eta Estatu Batuetako erakunde militarrek, Hong Kongeko banku nagusia eta EJJIE (Eusko Jaurlaritza) edo ULMA Handling systems bezalako tokiko erakundeak barne. Ordaintzen duten bezeroez gain, doako bertsioa edo Hdiv Community-k 1.000 erabiltzaile aktibo baino gehiago ditu, non deskargen % 17 Fortune 500en barruan dauden enpresetatik datozen.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Euskaltel
Harremanetarako pertsona	Roberto Velasco – 688910152 - roberto@hdivsecurity.com
Webgunea	www.hdivsecurity.com

Startupa lerro batean	Enpresetan Eransketa bidezko Fabrikazioaren ezarpena arintzeko aholkularitza teknologikoa.
Kokapena	Ordizia, Gipuzkoa
Sortzaileak	Javier Martinez - IK4-LORTEK
Langile kopurua	3
Eraikuntza-urtea	2018
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Zure negozio-ereduan Eransketa bidezko Fabrikazioaren integrazioan laguntzeko zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dizkizugu, 5 zerbitzu multzo handi hauetan: Teknologia Aholkularitza, Ingeniaritza, prototipoen eta lehenengo serieen Fabrikazioa, Prestakuntza eta ziurtagiriak.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Gure produktu eta zerbitzuek integrazio horretan laguntzen dute, eremu honetan 10 urte baino gehiagoko eskarmentua baitute.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Aerospace, Automotive, Oil & Gas, Energy, Transport, Industry
Bezero nabarmenak	Aerospace, Automotive, Oil & Gas, Energy, Transport, Industry
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Repsol-Petronor. • Mondragon BDC
Harremanetarako pertsona	Javier Martinez - +34 619263394 - jmartinez@iddo.es
Webgunea	www.iddo.es

Startupa lerro batean	Datuak interpretatzeko ingurune birtual interaktiboak.
Kokapena	Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa
Sortzaileak	Seda Tosun - Samara Ruiz
Langile kopurua	3
Eraikuntza-urtea	2018
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Murgiltze-bistaratzek diseinatzan ditugu, proiektu bakoitzaren helburura egokituak. AR-VR bidez, hirugarren dimentsioa aprobetxatzen dugu <i>business intelligence</i> -a areagotzeko, grafiko hiperdimentsionalen eta bistaratze bizidunen bidez. Biki digital bati batzen diogu ikusmen adimeneko kapa baten bidez. Horrela, prozesuak monitorizatzeko, kontrolatzeko eta simulatzeko aukera ematen duen tresna sortzen da. Gailu anitzetan jartzen dugu, adibidez, smartwatch-etan, betaurrekoetan edo pantailetan.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Industriak gero eta handiagoak diren erronkei aurre egin behar die, adibidez, datu ugari denbora errealean erabili beharrari, jazoerak murrizteari eta larrialdiei erantzun arinagoa emateari. Digital twin-ak, murgiltze-azterketarekin batera, eraginkortasunaren alde egiten du. Horren bidez, erronka horiek gainditu ahalko dira eta datuen potentziala erabili ahalko da era bizkor eta intuitiboan interfaze naturalekin. Prozesuak optimizatzen, mantentze-kostuak murrizten eta erabaki zentzudunak hartzeko datuen atzean dagoen istorioa kontatzen laguntzen dugu.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Ekoizpen-industriari, Logistikari, Smart City-ei, Telekomunikazioei eta datu konplexuak darabilen edozein sektoreri.
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Sidenor
Harremanetarako pertsona	Seda Tosun - +34 636515357 - seda@immersia.eu
Webgunea	www.immersia.eu

Startupa lerro batean	Ikerketa kliniko bizkortzen dugu mediku hizkuntzaren prozesamenduari esker.
Kokapena	Bartzelona
Sortzaileak	Javier de Oca - Álvaro Abella - Gabriel de Maeztu
Langile kopurua	6
Eraikuntza-urtea	2016
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Ikerketa kliniko bizkortzen dugu Real World Data-ren bidez milaka historia klinikora sartuz. Nola egiten dugu? Ohar klinikoek egituratzen duten ikaskuntza automatikoko tresnei esker. Milioika datu-puntu biltzen dira egituratutako eta ez egituratutako mediku erregistroen bidez hizkuntza naturalaren prozesamenduari esker. Horrek aurrerago profil zehatzak bilatzeko erabili daitekeen gaixo bakoitzaren irudi bana sortzen du.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	- Saiakuntza klinikoetarako gaixoen errekrutatzea bizkortzen dugu, profil zehatzak kokapen kliniko egokietan bilatzen saiatuz. - Behaketa bidezko ikerketak bizkortzen ditugu gure gune saretik bildutako eta egituratutako milioika datu-punturi esker. - Ospitaleei eta etika batzordeei ahalmen osoa ematen diegu datuetan sartu eta hauek erabili ahal izateko. Datuak lokalki biltzen dira eta erabat anonimoak dira, GDPRren estandarren arabera.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Farmazia-industriari eta kontratu bidezko ikerketa antolatzaileei.
Bezero nabarmenak	Hospital Universitari Vall d'Hebron, Grupo IMQ,
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	Grupo IMQ
Harremanetarako pertsona	Gabriel de Maeztu - +34 616 754 011 - gabi@iomed.health
Webgunea	www.iomed.health

Startupa lerro batean	JakinCode-k zibersegurtasuneko soluzio aurreratuak diseinatzen, garatzen eta inplementatzen ditu.
Kokapena	Vitoria/Gasteiz, Araba
Sortzaileak	Mikel Díaz de Arcaya - Diego Gil
Langile kopurua	10
Eraikuntza-urtea	2014
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Gure adituek zure azpiegiturari, sistemei, zerbitzuei eta langileei buruzko informazio publikoa bilduko dute ahultasunak aztertze eta ad-hoc prestatutako eraso-tresnekin eraso bat egingo dute, zure erakundean sartu ahal izateko eta informazioa eskuratzeko hautemanak izan gabe. Behin arriskuak ezagututa, gure bezeroen azpiegiturara moldatutako kontra-adimen neurriak diseinatzen ditugu, gerta daitezkeen mehatxuak hautemateko, monitorizatzeko eta gelditzeko.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Erabateko segurtasuna ez da existitzen, bi bide baino ez dago erakunde bat arriskuan jartzeko: ahultasun teknikoak esplotatuz edo ingeniari-tza soziala erabiliz. Neurri-egindako gure amu eta arrisku adierazleei esker, jokaera ezohikoa duten patroien berri ematen dugu, zibererasoak ahalik eta lasterren hautemateko eta mehatxua gauzatu baino lehen gelditu ahal izateko.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Sektore hauetako enpresei: Industria, Azpiegitura kritikoak, Finantza-zerbitzuak, Energia eta Osasuna.
Bezero nabarmenak	Siemens-Gamesa, Indar Electric (Ingeteam Group), Aceros Inoxidables Olarra, Bilboko Portu Autoritatea, Bilbao-Bizkaiko Ur Partzuergoa
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektu(k)	• CIE Automotive • Euskaltel • Grupo Elecnor
Harremanetarako pertsona	Mikel Díaz de Arcaya - +34 945198426 - arcaya@jakincode.com
Webgunea	www.jakincode.com

Startupa lerro batean	Industriarako eta larrialdirako errealitate birtualeko simulazioak garatzen ditugu
Kokapena	Bilbao, Bizkaia
Sortzaileak	Jon Martinez - Mikel Cearsolo - Mikel Calvo - Jon Lopez de Guereña
Langile kopurua	20
Eraikuntza-urtea	2018
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	LUDUS murgiltze-simulaziorako plataforma da. Errealitate birtualeko teknologiaren bidez, hainbat prozedura operatibo estandar eta arrisku egoera praktikatzeko aukera ematen die profesionali, inolako arrisku errealik gabe. Horrela, haien gaitasunak probatu ahal izango dituzte eta gaitasun berriak lortzeko trebatu ahalko dira modu erabat seguruan. Inguru neurgarria eta berriro erabiltzeko modukoa.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	LUDUSen arazo mota hauek konpontzen ditugu: ▪ Langileak entrenatu daitezke gelditu gabe edo makinaren erabilera eten gabe. ▪ Langileak bere lanetik aldatzeko beharra ez duen edozein protokolutan trebatu ahal dira, eta horrela, ez da egongo prestakuntzagatiko garraio gasturik. ▪ Langile guztiek trebakuntza prozesu bera dutenaren bermea. Era berean, langileen prozesuaren datu fidagarriak izan ditzakete, erabakiak hartzerako orduan pertzepzio hobea izateko helburuarekin. ▪ Trebakuntza arrisku altuko egoeretan eta protokoloetan, testuinguru erreal batean entrenatu ezin direnak.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Enpresa handiak, 1000 langile baino gehiago eta 100.000.000 € baino gehiagoko fakturazioa dutenak, zenbait sektoretakoak: garraioa (automobilgintza, trenbidearen industria eta aeronautika), sektore energetikoa, petrokimikoa edo kimikoa, prestakuntza arriskutsuen beharra dutenak.
Bezero nabarmenak	Naturgy (Ilehen, Gas Natural Fenosa), Thyssenkrupp, BASF, CEPESA, FORD, SLCA (Repsol eta BPren arteko joint venture-a), UBE; Faurecia, ADIF, Madrilgo suhiltzaile zerbitzua...
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Gestamp
Harremanetarako pertsona	Joana Epalza - +34 946122241 - joana.epalza@ludus-vr.com
Webgunea	www.ludus-vr.com

Startupa lerro batean	Onkologiaren eta bizi-kalitatearen emaitzak hobetzeko Adimen Artifiziala
Kokapena	Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa
Sortzaileak	Eider Sánchez Herrero - Maider Alberich Inchausti
Langile kopurua	6
Eraikuntza-urtea	2017
Produktu/zerbitzuaren deskribapena	Onkologiaren emaitzak hobetzeko Adimen Artifizialeko sistema. Tratamendu onkologikoa dirauen bitartean eta behin tratamendua bukatuta, medikuari zailtasunei aurre egiten laguntzen dion predikziozko sistema.
Zein arazo/erronka lantzen ditu?	Biztanleriaren < % 1ek parte hartzen du gaur egun saiakuntza klinikoetan. Gure helburua zera da: beste % 99 gaixoen esperientzia erabiltzea etorkizuneko gaixoen emaitzak eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.
Zein bezero motari dago zuzendua?	Ospitaleei, Farmazia-industriari, CROri, Biotech-eri, Aseguru Konpainiei
Bezero nabarmenak	Ospitaleen sektorea: Ospitaletara eta onkologia zerbitzu pribatu eta publikoetara zuzentzen gara. Farmazia-sektorea: Garapen edo merkaturatze bidean dauden tratamendu onkologiko berriak dituzten laborategietara zuzentzen gara; baita saiakera klinikoak egiten dituzten CROetara ere. Bezero nabarmengarrienak: Donostiako Unibertsitate Ospitalea
BIND 4.0 esparruan garatutako proiektua(k)	• Grupo Alcor
Harremanetarako pertsona	Eider Sanchez Herrero - e.sanchez@naruintelligence.com
Webgunea	www.naruintelligence.com

Startupa lerro batean	Neosentec-en errealitate areagotua erabiltzen dugu gure bezeroei soluzio desberdintzaileak eskaintzeko sektore anitzetan.
Kokapena	Asturias
Sortzaileak	Pedro Javier Sáez - Carlos González - Pablo Soto
Langile kopurua	11
Eraikuntza-urtea	2014
